

Enpresa aurrera eramateko eta martxan jartzeko, ezinbestekoa da baliabide batzuk izatea:



- Itsasontzi bat alokatzea gure enpresarako motorra da. Portuko arrainontzi bat izan beharko litzateke. Asteburuan lan egiten ez duen ontzi bat behar dugu. Horretaz gain, itsasontzi horren tripulazioa kontratatu behar dugu, 2-3 orduko jun-etorria egiteko itsasoan. Bidaia honetan bafora ez da gehiegi aurrunduko, baina ontzitik ez da lurra ikusiko. Arrantzaleek arrantzarako adina material izango dute bezeroak asetzeko. Hala ere, umeentzako hiru-lau kañabera eta arrantzarako ekipazioa erosi behar dira.



- Janaria ere funtsezko baliabide bat da gure enpresarentzat. Itsasontziko buelta eman ondoren, turistei Euskal Herriko plater tipikoak eskainiko dizkiegu: marmitakoa, atuna tomatearekin, bakailaoa pil pilean... . Plater horrek prestatzeko ezinbestekoa da janari jakin batzuk erostea: Atuna, tomatea, patatak, bakailaoa, kipula, azenarioa... . Janari hauekin batera, edariak eskainiko dizkiegu, ardoa eta sagardoa batez ere. Horretaz gain, "Jose Manuel Erreategia" kontratatuko dugu, bazkaria prestatzeko eta sukaldea/izozkailuak erabiltzeko.



- Turismo bulegoko gidarien lana ere ezinbestekoa da. Hauek, gure herriko leku esanguratsuenak erakutsiko dizkie turistei eta bitartean, leku hauen historia ere azalduko die. Hain zuzen ere, horregatik behar dugu turismo bulegokoak, Ondarroaren historia ezagutzen baitute. Era berean turisten galderari erantzuteko ahalmena izan behar dute.



- Lokalari dagokionez, ez dago arazo ekonomikorik. Izan ere, enpresaren sortzaile baten jabetzakoa baita. Ipar-kalean kokatzen da. Lokalean, argi-indarra, ur korrontea eta komuna dago. Beraz, bulegoko materialarekin hornitu behar dugu. Imprimagailuak, telefonoa, artxiboak, apalak, ordenagailuak, fitxak etab.



- Bi autobus alokatu beharko genituzke turistak gure herrira trasladatzeko. Autobus batek, herri jakin batzuetako turistak hartuko lituzke eta beste autobusak beste herrietakoak. Lea-artibaiko herri guztietatik pasatuko litzateke autobusak.